IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

IBARRAKO UDALAREN ETA TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL-REN ARTEKO 2026KO LANKIDETZA-HITZARMENA

Ibarran, 2026ko azaroaren 06an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Nekane Lazkano Prieto, Ibarrako Udaleko alkateordea, Jon Telleria Zalduendo idazkariak lagunduta.

Eta bestetik, Jon Aldanondo Albisu, 34108860K NAN zenbakiduna, Tolosako Komunikabideak SL sozietatearen ordezkaria. Sozietatearen egoitza soziala Tolosako San Esteban auzoko 20. zenbakian dago, eta IFK B20915468 du.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, 2025/153 Alkate Dekretuaren bidez eskuordetutako eskumenen arabera.

Bigarrenak, Tolosako Komunikabideak SL sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, zuzendari gisa, 2012ko abenduaren 14an notarioaren aurrean emandako ahalordearen arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, ondorio horretarako,

AZALDU DUTE

I.- Tolosako Komunikabideak SL sozietatea 28 Kanala komunikabidearen arduraduna da. 28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabidea da, eta eskualdeko informazioa eta ikus-entzunezko edukiak euskaraz sortu eta zabaltzen ditu, telebistaren, webgunearen eta sare sozialen bidez.

Komunikabidearen jardueraren ardatz nagusia Tolosaldeko herrietako gaurkotasuna eta bertako eragileen jarduna ezagutaraztea da. Horretarako, albisteak, erreportajeak eta bestelako saioak ekoizten ditu, herritarrei euskarazko informazioa eskaintzeko.
28 Kanala Tokikom Euskal Herriko toki-komunikabideen sareko kidea da, eta beste euskarazko hedabide batzuekin elkarlanean jarduten du. Era berean, adin eta interes desberdinetako herritarrengana iristeko edukiak lantzen ditu, informazioaren aniztasuna, kalitatea eta genero-berdintasuna kontuan hartuta.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Jarduera horren bidez, euskararen erabilera eta presentzia sustatzen ditu komunikazioaren esparruan, baita Ibarrako herriari buruzko informazioa zabaltzen lagundu ere.

II.- Tolosako Komunikabideak SL sozietateak 2026ko otsailaren 25ean Ibarrako Udalean aurkeztutako eskaeraren bidez (sarrera-erregistroko zenbakia: 2026-692), 2026ko jarduera-proiektua eta aurrekontua aurkeztu zituen, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurkeztutako proiektuak 499.969,19 euroko aurrekontua du 2026ko ekitaldirako. Ibarrako Udalak 8.200 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusi du Tolosako Komunikabideak SLrentzat, 28 Kanalaren komunikazio-proiektua finantzatzen laguntzeko. Dirulaguntza hori hitzarmen honen bidez arautuko da.

Dirulaguntzaren esparruan, honako jarduera hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du sozietateak:

- Ibarrari buruzko gutxienez 363 erreportaje edo saio egitea eta zabaltzea 2026an, 2025ean izandako jarduera-mailari eutsiz.
- Eduki horiek 28 Kanalaren webgunean argitaratzea, zabaltzen diren heinean.
- Webgunean Ibarrari buruzko edukiak herrika sailkatutako atal berezitu batean eskuragarri izatea: https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/67-herriak/ibarra
- Ibarrako albisteak eta herriko kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerei buruzko informazioa 28 Kanalaren komunikazio-euskarrien bidez zabaltzea, telebista eta sare sozialak barne.

III.- Tolosako Komunikabideak SL sozietatea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Dirulaguntzei buruzkoaren, 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debeku-egoeretako batean.

IV.- Tolosako Komunikabideak SL sozietatearen xede soziala bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren helburuarekin, euskarazko tokiko komunikazioa eta informazioaren zabalkundea sustatzeari dagokionez.

V.- Ibarrako Udalaren 2026ko aurrekontuan, 1 10.481.09.335.00 2026 aurrekontu-partidan, Tolosako Komunikabideak SL sozietateari zuzendutako 8.200 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusita dagoela.

VI.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan udalerrien eskumen-esparrua ezartzen du, eta 25.2 artikuluan kultura sustatzeko eskumena jasotzen du.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan udalerrien eskumen propioak zehazten ditu. Horien artean daude kultura eta kultura-jarduerak sustatzea (17.1.20 artikulua) eta euskararen erabilera sustatzeko udal-politikak garatzea (17.1.26 artikulua).

Eskumen horien esparruan, Ibarrako Udalak euskarazko tokiko komunikazioa sustatzen duten egitasmoak babestu ditzake. Tolosako Komunikabideak SL sozietateak 28 Kanalaren bidez garatzen duen jarduerak Ibarrako eta Tolosaldeko informazioa euskaraz zabaltzen laguntzen du, herriko kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerei ikusgarritasuna emanez.

Horrenbestez, hitzarmen honen bidez araututako dirulaguntza udalaren kultura- eta hizkuntza-sustapeneko helburuekin bat dator.

VII.- Hitzarmen hau arau hauen babesean egiten da: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; lege hori garatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

VIII.- Dirulaguntza hau Ibarrako Udalbatzak 2024ko martxoaren 21ean onartutako Ibarrako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 76. zk.).

Dirulaguntza izenduna denez, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zuzenean emateko prozedura aplikatuko da, norgehiagoka-prozedurarik egin gabe.

IX.- 2025/153 Alkate Dekretuaren bidez eskuordetutako eskumenen arabera, 15.000 eurotik beherako dirulaguntza izendunak emateko eskumena Ibarrako Udaleko alkateordeari dagokio.

X.- 2026ko azaroaren 04an 703/2026 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Tolosako Komunikabideak SL sozietateari 8.200 euroko dirulaguntza izenduna ematea eta dagokion lankidetza-hitzarmena onartzea erabaki zela.

XI.- Dirulaguntza honi buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Ibarrako Udalaren eta Tolosako Komunikabideak SL-ren arteko lankidetza arautzea, 2026ko ekitaldian 28 Kanalaren bidez Ibarrari buruzko informazioa eta ikus-entzunezko edukiak euskaraz sortzea eta zabaltzea sustatzeko.

Horretarako, Ibarrako Udalak 8.200 euroko dirulaguntza izenduna emango dio Tolosako Komunikabideak SL-ri, hitzarmen honetan ezarritako baldintzen arabera, euskarazko tokiko komunikazioa sustatzeko eta Ibarrako kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren zabalkundea bultzatzeko.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen esparruan, Tolosako Komunikabideak SL sozietateak honako jarduera hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du 2026ko ekitaldian:

1. Ibarrari buruzko gutxienez 363 erreportaje edo saio egitea eta zabaltzea, 2025ean izandako jarduera-mailari eutsiz.
2. Eduki horiek 28 Kanalaren webgunean (www.28kanala.eus) argitaratzea, zabaltzen diren heinean.
3. Ibarrari buruzko edukiak webguneko herrika sailkatutako atal berezitu batean eskuragarri izatea: https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/67-herriak/ibarra
4. Ibarrako albisteak eta herriko kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerei buruzko informazioa 28 Kanalaren komunikazio-euskarrien bidez zabaltzea, telebista eta sare sozialak barne.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak hitzartutako jardueren finantzaketan parte hartuko du 8.200 euroko dirulaguntza izendunaren bidez, 2026ko udal-aurrekontuko 1 10.481.09.335.00 2026 partidaren kargura.

Dirulaguntzaren zenbatekoa 8.200 eurokoa izango da gehienez. Dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira diruz lagundutako jardueren benetako kostua, aurkeztutako justifikazioa eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik jasotako laguntzak.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarrako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko jardueretan izango ditu ondorioak.
Dirulaguntzaren onuradunak diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla eta jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu beharko du Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren aurrean, udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. kapituluan eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortutakoak, merkatuko balioa gainditzen ez dutenak eta, hitzarmen honetan edo aplikatzekoa den araudian bestelakorik ezarri ezean, justifikazioa aurkezteko epea amaitu aurretik benetan ordainduta daudenak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren onuradunak hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatu beharko du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan, lege hori garatzeko Erregelamenduan eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. kapituluan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza gastuen egiaztagiriak aurkeztuta osatutako justifikazio-kontuaren bidez justifikatuko da. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Jarduera-memoria.

2026ko ekitaldian egindako jarduerak eta lortutako emaitzak jasoko dituen memoria aurkeztuko da, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Ahal den neurrian, datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira.

Memoriak, gutxienez, honako informazio hau jasoko du:

- 2026an Ibarrari buruz egin eta zabaldutako erreportaje edo saioen kopurua, gutxienez 363 izan direla egiaztatzeko.
- Erreportaje edo saio horien zerrenda, izenburua, argitaratze- edo emisio-data eta webguneko esteka adierazita.
- Ibarrako edukiak 28 Kanalaren webgunean eta herrika sailkatutako atal berezituan argitaratu direla egiaztatzeko informazioa.
- Ibarrako albisteak eta kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerei buruzko informazioa telebistan eta sare sozialetan zabaltzeko egindako jardueren azalpena.

b) **Justifikazio ekonomikoa.**

Hitzarmen honen 1. eranskina behar bezala beteta aurkeztuko da, egindako jardueren kostuak eta finantzaketa-iturriak zehaztuta, aplikatzekoa den araudian eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako egiaztagiriekin batera.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzaren onuradunak 2026ko ekitaldian egindako jardueren justifikazioa aurkeztu beharko du jarduerak gauzatzeko epea amaitu eta hilabeteko epean, hau da, 2027ko urtarrilaren 31ra arte.

Justifikazioa hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako dokumentazioaren bidez aurkeztuko da, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Ibarrako Udalak 8.200 euroko dirulaguntza bi ordainketatan ordainduko dio Tolosako Komunikabideak SLri:

a) Lehenengo ordainketa dirulaguntzaren % 70ekoa izango da, hau da, 5.740 eurokoa, eta dirulaguntza emateko ebazpena eman eta hitzarmena sinatu ondoren egingo da, aurrerakin gisa.
b) Bigarren ordainketa dirulaguntzaren gainerako % 30ekoa izango da, hau da, 2.460 eurokoa, eta diruz lagundutako jarduerak justifikatu eta justifikazioa onartu ondoren egingo da.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Tolosako Komunikabideak SL sozietateak Ibarrako Udalaren finantzaketa publikoari behar bezalako publizitatea eman beharko dio, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrietara egokitutako neurrien bidez.

Horretarako, Ibarrako Udalaren laguntza adieraziko du diruz lagundutako jarduerarekin lotutako komunikazio-euskarrietan, bereziki webgunean eta ikus-entzunezko materialetan, euskarri bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Udalaren finantzaketari emandako ikusgarritasuna beste finantzaketa-iturri batzuei emandakoaren parekoa izango da.

Era berean, Tolosako Komunikabideak SL sozietateak Ibarrako Udalak antolatutako edo sustatutako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-ekitaldien informazioa zabaltzen lagunduko du, hitzarmen honetan jasotako jardueren esparruan.

Hamargarrena.-Euskararen erabilpena.

Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak euskaraz gauzatuko dira, 28 Kanalaren izaerarekin eta hitzarmenaren helburuarekin bat etorriz.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

Horrenbestez, Ibarrari buruz sortutako albisteak, erreportajeak, saioak eta bestelako ikus-entzunezko edukiak euskaraz ekoitzi eta zabalduko dira, bai telebistan, bai webgunean eta sare sozialetan.

Jarduera horietan Ibarrako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzan ezarritakoa beteko da.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Tolosako Komunikabideak SL sozietateak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, bereziki martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean ezarritakoa.

Dirulaguntzaren onuradun izateko debekuak aplikatuko zaizkio, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan, sexuagatiko diskriminazioa dakarten jarduerak egiten baditu edo berdintasunaren arloko araudia urratzeagatik administrazio- edo zigor-bidean zehatuta badago, dagokion zehapenak ezarritako epean.

Era berean, hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueretan, Tolosako Komunikabideak SL sozietateak genero-ikuspegia txertatuko du, hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta irudi anitza sustatuko ditu, genero-estereotipoak saihestuz.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduerak bete eta dagozkion betebeharrak gauzatutakoan, edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako azkentze-arrazoiren bat gertatzen denean.

Hitzarmena azkentzeak ez ditu eragotziko dirulaguntzaren justifikazioari, kontrolari eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzeari buruzko betebeharrak.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Ibarrako Udalak dirulaguntzaren erabileraren kontrola eta jarraipena egingo ditu, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

Tolosako Komunikabideak SL sozietateak udalaren kontrol- eta egiaztapen-lanetan lagundu beharko du, eta horretarako eskatzen zaizkion agiriak eta informazioa aurkeztu beharko ditu.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

Kontrol- eta jarraipen-lanetan hitzarmen honetan ezarritako baldintzak ez direla bete egiaztatzen bada, aplikatzekoa den araudiaren arabera dagozkion neurriak hartuko dira, hala badagokio, jasotako dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko edo ordaintzeke dagoen zenbatekoa kobratzeko eskubidea galtzeko.

Hamalaugarrena.- Lan eta zerga legeria.

Tolosako Komunikabideak SL sozietateak, hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak gauzatzean, indarrean dagoen araudia bete beharko du, bereziki zerga-betebeharrei, lan-harremanei eta Gizarte Segurantzari dagokienez.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertan ezarritako klausulek eta aplikatzekoa den araudiak arautuko dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Komunikabideak SL sozietateak egiaztatu beharko du ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debeku-egoeretan.

Egiaztapen hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egingo da, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 6. artikuluan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako baldintzen arabera.

Hamazazpigarrena.- Aplikatzekoa den gainerako legeria.

Hitzarmen honetan berariaz arautu gabeko alderdiei dagokienez, honako arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemezortzigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Hitzarmen honen esparruan egiten diren datu pertsonalen tratamenduetan, bi aldeek datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Alde bakoitzak bere arburapeko datu pertsonalen tratamenduak aplikatzekoa den araudiaren arabera egingo ditu, eta datuen konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko dagozkion neurriak hartuko ditu.

Hemeretzigarrena.- Datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

Ibarrako Udalak, dirulaguntzaren emakida, ordainketa, justifikazioa eta kontrola izapidetzeko, Tolosako Komunikabideak SL sozietateak dirulaguntzaren onuradun izateko eta jasotako laguntza mantentzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du.

Horretarako, beharrezkoak diren datuak eta egiaztagiriak kontsultatu edo eskatu ahal izango dizkie administrazio eta erakunde publiko eskudunei, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzen arabera.
Datuen kontsultarako berariazko baimena behar den kasuetan, dagokion baimena eskatuko zaio entitate onuradunari.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmen honen testua Ibarrako Udalaren Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratuko da, gardentasunari eta publizitate aktiboari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Argitalpenean datu pertsonalen babesari buruzko araudia beteko da.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute. Ibarrako Udaleko idazkariak egintzaren fede ematen du.

ALKATEORDEA | **TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL**

Nekane Lazkano Prieto | **Jon Aldanondo Albisu**

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

Entitate onuraduna: Tolosako Komunikabideak SL
Diruz lagundutako jarduera: 28 Kanalaren bidez Ibarrari buruzko informazioa eta ikus-entzunezko edukiak euskaraz sortzea eta zabaltzea
Ekitaldia: 2026
Espedientea: 2026WDI10003
Ibarrako Udalaren dirulaguntza: 8.200,00 €

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak:_____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____(Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	**€**
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO - **Ibarrako udala** - **Gainontzekoak**	**€**

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Taula orokorra (Adibidea)

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	
Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	

Justifikatutako gastuak zehaztuta (ADIBIDEA)

AGIRI MOTA/ TIPO DOCUMENTO	ZK.	DATA	IGORLEA EDO JASOTZAILEA / EMISOR O RECEPTOR	CIF / DNI	KONTZEPTUA	BEZ-a €	IRPF %	€
GUZTIRA								

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

ESKUa7d10759-2012-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioko erreziboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituena, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen petsona.
5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objetua
7. BEZ-a: Faktura eta Tiketen kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturetan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketa

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolanahi ere, prest nagoela Ibarrako Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

xxxxxxxxxxxxx

Izena Abizenak……xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx……

Lekua eta data: .....n, 20…ko .....ren .....an

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

LEGE-OHARRA
Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearekin bat etorriz, dirulaguntza honen izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatuko dira. Datu horien tratamenduaren helburua dirulaguntzak eta horiekin zerikusia duten administrazio-prozedurak edo espedienteak kudeatzea izango da, baita interesdunei prozeduraren garapenari buruzko informazioa ematea ere. Datuen tratamenduaren arduraduna Ibarrako Udala da. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta indarrean dagoen araudian aitortutako gainerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte Ibarrako Udalaren aurrean, San Bartolome 2, 20400 Ibarra helbidean.

ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2.-ERANSKINA
ALTA HIRUGARRENEI

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5

Ordainketak bideratzeko datuak

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA
ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO

A **HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

(1) **NAN/IFZ**
DNI/CIF .....

(2) **Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena**
Nombre y dos apellidos / Razón Social .....
.....

Helbidea
Domicilio.....

Posta kodea **Herria**
Código postal..... Población .....

Herrialdea
País.....

B **BANKUAREN DATUAK**
DATOS BANCARIOS

(1) **Bankua** ☐☐☐☐ _____
Banco

(2) **Agentzia** ☐☐☐☐ _____
Agencia

(3) **KD** ☐☐ **K/korrontea** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
DC C/Corriente

(4) **Jabea**
Titular
OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar da izan.
NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

Bankuaren adostasuna	**Hirugarrenaren adostasuna**	**Sail edo Erakundearen onespena**
Conforme banco	Conforme tercero	V° B° Dpto. u Organismo
C	**D**	**E**
Sinadura eta zigilua	**Sinadura eta zigilua**	**Behirendutako sinadura eta zigilua**
Sello y firma	Sello y firma	Sello y firma autorizada

Data / Fecha

EKS | CSV: ESKUa7d10759-2612-42e9-b859-88897a66e366
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026WDI10003-hitzarmena sinatzeko/hitzarmena sinatzeko ()

Sinatzailea 1 / Firmante 1: YON ALDANONDO ALBISU
Data / Fecha: 2026/11/09 10:17:00

Digitalki sinatua:

IBARRAKO UDALA

Nekane Lazkano Prieto
Alkateordea
Data: 2026/11/09 10:29:51